

Banaketa eta komunikazio kanalak

Puck aplikazio bat izan arren, webgune baten bitartez erabili ditzakete aplikazioaren zerbitzuak. Beraz, komunikazio-kanal egokiena Interneta da.

Nabarmendu daiteke enpresa honek ondasunik ez dituela saltzen, zerbitzuak eskaintzen dituen konpainia da, alegia. Ondorioz, ez dira beharrezkoak bitartekaritza-enpresak.

Promozioa:

Aplikazioa sare sozialen bitartez ezagutzera emango dugu, sare sozialetan erabiltzaile asko daudenez, bide errezena delako gure enpresa sustatzeko. Orduan, enpresaren xedea hainbat kontu izatea izango da, hainbat sare ezberdinetan, non argazki eta bideo ezberdinak argitaratuko dira.

